

Datorren urriaren 10ean, asteazkena, Enpresa Zientzien Fakultateko aparkalekua irekita egongo da

2007/10/04

Hiru bat aste pasatu dira fakultateko aparkalekua itxi zutenetik parean egiten ari diren kale berria medio dela.

Hau dela eta, inguruetan aparkatzen ibili gara, baina, datorren astean, urriaren 10ean, asteazkena, berriz ere aparkalekua erabiltzeko beta izango dugu.

Aldaketa txiki batzuek izango dira dena den, sarrera-irteerari dagokionez.

Orainarte bai sartu bai irtetzeko erabili dugun kalea, hemendik aurrera, aparkalekutik ateratzeko baino ez da izango. Sarrera berriz, tokiz aldatzen da.

Legazpira bidean goazela, semaforo guztiak pasa ondoren ezkerretara hartu beharko dugu eta bertatik helduko gara fakultate parera.